

Azterketa-Diagnostikoa
Análisis-Diagnóstico

Elgoibarko Udala
Ayuntamiento de Elgoibar

1994



Herri Konturen
Euskal Epaiategia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



Berri-Erakunde
Eusko Legebiltzarra
Euskal Herriko Unibertsitatea
Kultura, Tendak eta Politika
Gobernua

Elgoibarko Udalaren azterketa-diagnostikoa

Análisis-diagnóstico del Ayuntamiento de Elgoibar

1994

Vitoria/Gasteiz, 1996ko irailak 26
Vitoria/Gasteiz, a 26 de septiembre de 1996



SARRERA

HKEEk 1996. urtealdirako zuen lan plangintza betetzeko, Udalaren 1994. urtealdiko Kontu Orokorrerean barne hartutako dokumentazioaz eta Udalak aurkeztutako informazio osagarriaz baliaturik, eta 1994. urtealdiko Toki Erakundeen diagnostikoaren atal den barne kontrolari buruzko inuesta aztertuta, azterketa mugatua mamitu du.

Elgoibarko Udalerrak 1994an 11.693 biztanle ditu eta urtealdirako 1.162 milioi pta.ko aurrekontua.

HEDADURA

Egindako azterlanak honako hedadura izan du:

- Erabilitako kontularitza prozeduren azterketa.
- Oniritxitako aurrekontuaren eta aurrekontu egiterapenerako oinarrien azterketa.
- Zorpidetzaren azterketa.
- Dirulaguntzen azterketa.
- 1994. urtealdian langileen egoeraren azterketa.
- Administrazio kontrataziorako erabilitako prozeduren azterketa, espedienteak zorroztasunez aztertu gabe.

ONDORIOAK

Segidan, egindako lanetik eskuratu ditugun ondorioak jarduera alor ezberdinaren arabera sailkatuak azalduko ditugu; horiek, ordea, ez dira fiskalizazio baten emaitzatzat hartuko, ezta horietan berariaz aipatzen ez diren alderdietara izaera orokorrean zabalduko ere.

1. KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK.

Elgoibarko Udalaren aurrekontuak alor horretako foru araudiaren arabera egiten dira (4/91 FA eta 96/92 FD).

Elgoibarko Udalaren 1994ko Kontu Orokorra osatu behar lukeen edukiaren arauzko azterketatik ondoko egoera hauek ondorendu dira:

- 1994ko aurrekontu urtealdiari dagokion likidazioa 1995eko apirilaren 27ko Osokoan oniritzi zen, baina ez daukagu 94. urtealdiko Kontu Orokorra mamitu eta oniritzi delako egiaztagiririk.
- Udalak ez du urtealdiaren aurrekontu emaitza kalkulatzeko indarreko aurrekontuaren emaitza itxitako urtealdien emaitzetik bereizten, eta finantzaketa desbideraketak ere ez ditu kalkulatzen.
- 1994. urtealdiko Diruzaintza Gaindikinaren kalkuluan, udalbatzak ez du kobratzeko dauden eskubideak denboran noiz gauzatuko diren aurreikusiko duen finantza azterketarik egin.



- Ez da urtealdiaren Diruzaintza Kontua aurkeztu.
- 1994an Udalak Ondare Kontabilitatea finkatu gabe zuen eta honenbestez, urtealdi itxieran Egoera Balantzea, Emaitzen Kontua eta Urteko Finantzaketa Taula gauzatu gabe zeuden.
- Urtealdiaren memoriarik ez da egin.
- Finantza gastuak erregistratzeko zorpidetza printzipiorik ez da erabiltzen.

94.12.31n gaindikina

Elgoibarko Udalaren 1994. urtealdiko aurrekontu likidazioak 22.525 mila pezetako Gaindikin positiboa du.

HKEE honek kontularitza partida nagusien gainean egindako azterlanetik segidako gertakariok ondorendu dira, 94.12.31n Diruzaintzan eragina dutenak:

- 1994. urtealdia baino lehenagoko urtealdietan aitortutako 120.000 mila pta.ko sarrera bat dago, udal jabetzako 71 garajeren salmentari dagokiona.
- Garaje horiek 94.12.31n besterendu gabe zeuden eta 8 garajeren behin-betiko esleipena 1995eko urtarriaren 9an egin zen 13.211 mila pta.n. Eragiketa hau eskrituran jasotzea eta zegozkion kopuruak kobratzea -lehiaketa aurretik utzitako fidantza izan ezik-, 1995ean gauzatu zen.

Honenbestez, 94.12.31ko Gaindikina 120.000 mila pta.n murritztu behar da.

- Gipuzkoako Foru Diputaziotik jaso beharreko dirulaguntza kontzeptuan aurreko urtealdietatik kobratzeko eskubide modura erregistraturik zegoen 39.000 mila pta.ko kopuru bat ez dauka Udalak kobratzerik Gaztedia eta Kirolaren Foru Sailak 94.5.27an egindako jakinarazpen baten ondorioz, azken dirulaguntza 121.000 mila pta.n finkatu baitu, 94.12.31n iada Udalak jasoa zuen kopurua (10.000 mila pta. 1993. urtealdian eta 21.000 mila pta. 1994. urtealdian). Aurrekoaren arabera, 1994. urtealdiaren itxieran Gaindikina 39.000 mila pta.n murritztu behar da.

Elgoibarko Udalaren 94.12.31ko Gaindikina, aurreko parrafoetan esandakoaren arabera, zuzendua, honako hau da:

| | Mila-pta. |
|--|------------------|
| Udalaren likidazioaren araberako gaindikina..... | 22.525 |
| Garajeak besterentzean oker aitortutako sarrera..... | (120.000) |
| Dirulaguntzengatik oker aitortutako sarrera..... | (39.000) |
| HKEE-K KALKULATUTAKO GANDIKINA | (136.475) |



2. FINANTZA EGOERA

Segidan zehaztutako moduan, Udal honen finantza egoera oso zaila da.

| | |
|--|---------------------|
| 94.12.31n indarreko zora..... | 1.215.735 mila pta. |
| Aurrekontuarren ganeko % zora..... | %104,63 |
| Eskubide likidatuen ganeko % zora..... | %103,68 |
| 1994ko finantza zama..... | 149.184 mila pta. |
| Aurrezki gordina (1)..... | 249.019 mila pta. |
| Aurrezki garbia (2)..... | 99.835 mila pta. |
| Zorpidetza mala (3)..... | %15,8 |
| Zorpidetza muga (4)..... | %26,4 |
| Gastu publikoa buruko (5)..... | 98 mila pta. |
| Inbertsio indizea (6)..... | %20,9 |
| Toki Zergetan preso fiskala (7)..... | 33,6 mila pta. |
| Dirulagunzekiko menpetasuna (8)..... | %51,93 |

(1) Sarrera arruntak (1-5 atalb.) - Gastu amuntak (1,2 eta 4. atalb.).

(2) Aurrezki gordina - Finantza zama (gastuen 3 eta 9. atalb.).

(3) Finantza zama / Sarrera amuntak *100.

(4) Aurrezki gordina / Sarrera amuntak *100.

(5) Urtealdiko gastua / biztanle kopurua.

(6) Inbertsio gastuak + Kapital dirulaguntzaren gastuak / Gastuak guztira.

(7) Zerga sarrerak (1, 2 eta 3) / biztanle kopurua.

(8) Transferentziengatko sarrerak (4. eta 7. atalb.) / Sarrerak guztira.

Erakundearen zorra urtealdiaren aurrekontua baino handiagoa da, eta honi ondoko egoeraok erantsi behar dizkiogu:

HKEEk zuzendutako Diruzaintza Gaindikina 136.475 mila pta.n negatiboa da.

Erakundeak 94.12.31n 19.686 mila pezetako fondo likidoak soilik zituen; ordaintzeko obligazioak 188.352 mila pta.koak ziren eta kobratzeko eskubideak, berriz, 46.313 mila pta.koak.

1994. urtealdiko itxiera zorra, ondoko maileguotan zati-banatzen da:

| MAILEGUA | GALIZATUTAKO URTEA | IRAUINGIPEN URTEA | Mila-pta |
|------------------------------|-----------------------|----------------------|-------------------------|
| | | | 94.12.31N ZOR SALDOA |
| BCLE..... | 1954 | 2002 | 647,1 |
| KUTXA..... | 1993 | 2008 | 250.804,3 |
| KUTXA..... | 1992 | 2007 | 211.885,6 |
| Lankide Aurrezka..... | 1994 | 2009 | 160.000,0 |
| KUTXA (brifinantzaketa)..... | 1994 | 2004 | 592.397,9 |
| GUZTIRA | | | 1.215.734,9 |



Urtealdiaren egiazko finantza zama honako hau izan da:

| | Mila-pta. |
|--|----------------|
| 94ko amortzazioa (birfinantzaketank gabe) | 38.624 |
| 94ko interesak..... | 110.560 |
| GUZTIRA | 149.184 |
| 94ko sarrera amuntak | 943.831 |
| 94ko sarrera amunten gainean % finantza zama | %15,8 |

Bestetik, 1995eko martxoaren 20an udalbatzak 1995eko aurrekontuan barne hartutako inbertsioak finantzatzeko 125.000 mila pta.ko mailegu baten kontzertazioa onartu zuen eta honek, urtealdiaren sarrera arruntekiko finantza zama %20,40ra arte gehitzen du.

Udal zorpidetza oso handia da eta gainera, gaina jo du; honen aurrean Udalak neurri zuzenak hartu beharko ditu gastu arrunta eta dirulaguntzak murrizteko eta baita, inbertsioak udalbatzaren egiazko gastu gaitasunera mugatzeko ere.

3. DIRULAGUNTZAK

Elgoibarko Udalak 1994. urtealdirako dirulaguntzen atalburuan egindako gastua, erakundeak eskuratu digun informazioaren arabera, honako hau da:

| JARDUTE SAILA | ZENBATEKOA |
|---|----------------|
| Euskera..... | 21.318 |
| Kultura, gaztedia, kinolak eta hezkuntza..... | 65.567 |
| Ekonomia, ogasuna eta finantzak | 9.865 |
| Gizarte zerbitzuak eta ongizatea | 39.761 |
| Osasuna eta azoka | 27.680 |
| Hingntza, urak, bide publikoak eta baserritardeak | 500 |
| Barne alorra, langilea eta administrazio orokorra | 500 |
| GUZTIRA | 164.691 |

- Ezargarria den araudiak babesten dituen gastuak Gizarte Larritasun eta Pobreziaren aurkako Laguntza Planarenak soilik dira, 9.298 mila pta.koak.
- Emanako dirulaguntza nominatiboak honako hauek dira:



| | Mila pta. |
|--|----------------|
| DIRULAGUNTZAREN HARTZAILEA | ZENBATEKOA |
| Exerako lagunza..... | 10.500 |
| DEBABE mankomunitatea..... | 9.543 |
| Gipuzkoako uren partzuergoa..... | 27.680 |
| DEBEGESA..... | 7.465 |
| Makina heramintaren museo erakundea..... | 2.400 |
| Muskaren Fundazio Publikoa..... | 30.000 |
| San Lázaro Egortzaren Fundazioa..... | 14.388 |
| Haurtzandegia..... | 5.211 |
| Guass Diskoteka..... | 100 |
| OMIC ekarpenea..... | 1.456 |
| Kastetxeen dirulaguntzak..... | 10.100 |
| Gizarte Bermeako Moduloak: IKASBAT..... | 3.627 |
| EUDEL..... | 500 |
| GUZTRA | 122.970 |

- Gainera, Udalak 4. atalburuko aurrekontuan izenez izendatutako gastuak ditu, jarduera alorraren araberako dirulaguntzen xehekapenean barne-hartu ez direnak; gastu horiek 2. atalburuan izendatu behar lirateke, emandako zerbitzuengatik fakturaketei baitagozkie- eta.

| | Mila pta. |
|----------------------------|---------------|
| Deba Beheko Mankomunitatea | |
| Bide garbiketa..... | 30.010 |
| Zaborrak..... | 34.403 |
| GUZTRA | 64.413 |

- Izenezkoak ez izateagatik horiek arautzen dituen araudiak babesten ez dituen dirulaguntza guztietatik %77ari dagokionez, ordainketa baimentzen zuten Gobernu Batzordearen akordioak eskuratu zaizkigu; ez dakigu onuradunen artean banaketa egiteko erabilitako irizpideak eta eskatutako baldintzak zein izan diren.

Gaineko dirulaguntzei dagokienez, 7.830 mila pta.koak, ez zaigu agiri euskarririk batere eman.

Udalatzak publizitate, objektibotasun eta lehiaketa printzipioak betetzea bermatuko duten dirulaguntzei buruzko araudi erregulatzalea oniritzi behar du, dirulaguntzak jasotzen dituztenek bete behar dituzten baldintzak finkatu eta euren zerga obligazioak betetzen dituztela egiaztatuko duena; aurrekontuan izenez izendatzen diren dirulaguntzei dagozkiengauak udalaz gaindiko erakundeei -dagozkienei- egiten zaizkien ekarpenetara eta erakundeei eta udalerriaren meneko entitateei egiten zaizkien transferentziatar mugatu behar dira.



4. LANGILEGOA

1995eko apirilaren 27ko Osokoaren udalbatzak lanpostuen zerrenda oniritzi zuen eta bertan lan kontratupeko langile modura 18 lanpostu barne-hartu dira, segidan zerrendaratuiko ditugunak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 19. art.aren arabera, langilego funtzionarioentzat gordeak behar zuketenak:

| | |
|---|-----------------------------------|
| 1 Diruzaintzako Administraria | 2 Errenta administrari |
| 2 Ekonomia alorreko administrazio lag. | 1 Urasandiko atezaina |
| 1 Kiroletako teknikaria | 2 Liburutegiko laguntzaile |
| 2 Gizarte laguntzaileak | 1 Giza zerbitz. administr. lag. |
| 1 Drogomenpetasunerako teknikaria | 1 Hirigintzako administr. lag. |
| 1 San Lázaro Egoitz. administrazio lag. | 1 Udaltzaingoaren administr. lag. |
| 2 San Lázaro Egoitz. ATS | |

Ondoko lanpostuori ez zaie hizkuntza eskakizunik ezarri:

| | |
|-------------------------------------|----------------------------|
| 1 Informatika monitorea | 2 garbiketarako lag. |
| 2 San Lázaro Egoitz. ATS | 1 atezaina |
| 1 San Lázaro Egoitz. sukaldaria | 1 Jakinarazlea |
| 1 hirigintza eta obra administraria | 1 obren arduraduna |
| 1 Elektrizista | 1 Ekonomia alorreko admin. |
| 4 Udaltzaingo | |

- Udalbatzak 10 suhiltzaleri zerbitzua emateagatik hilabetero ordubeteko egiazko jardueragatik 15.525 eta 1.915 pta. ordaintzen dizkie. Langile hauek nomina independientea dute, ez daude Gizarte Segurantzaren alta emanak, istripuetarako aseguru poliza egin bazaie ere, eta euren ordainsarietan ez da Norbanakoaren Urteko Irabazien gaineko Zergaren kontura atxikipenik egiten.

Honez gain, udalbatzak baditu langilegoan beste zenbait egoera oker, segidan azalduko ditugunak:

- Bi pertsonari hiruhilabetero ordularien mantenua egiteagatik ordainketak; hauei, autonomoak izatea eta ordainagiriak aurkeztea eskatu behar zitzaien.
- Bi operadoreri, txartel saltzaile bat eta akomodadore bat zine saio bakoitzagatik ordainketak; Udalak denbora partzialerako kontratatu behar zitzueen edo udal zine/antzoki zerbitzua enpresa bat kontratatu.
- Udal arkitektoak 82. urtetik zerbitzu kontratu bat dauka, 117.658 pta. ordaintzen zaizkio eta %8 atxikitzen zaio, baina ez dago Gizarte Segurantzaren altan emana eta ez du BEZi lotutako fakturaketarik hilabetero egiten. Udal arkitektoaren egitekoak



langile funtzionarioaren bateraezintasun berberak izan behar lituzke (53/84 Legea eta 598/85 ED).

- Udalatzak herriazko osagarria kobratzen duten eta baloraketagai izan ez diren bestelako egitekoak betetzen ari diren bi udaltzain ditu.
- Orobak, udaltzainei aparteko ordu teorikoen kontzeptuan zenbateko bat ordaindu zaiela jakinarazi digute eta gerora, aparteko ordu egiazkoak ordaindu direla.

Azaldutako egoera hauen aurrean, udalatzak langilegoa indarreko legedira biltzeko beretako ahalegina egin behar du, Gizarte Segurantzaren alta emanetz eta lan kontratuak hobetuz edo zerbitzua emateko kontratu bidez euren zerbitzuak enpresekin lotuaz.

Era berean, lanpostuen zerrendak Euskal Funtzio Publikorako Legean erabakitakora egokitu behar dira, langile funtzionarioekin bete behar diren lanpostuak ez daitezten lan kontratuko langileekin bete.

5. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOA

1994an zehar segidan zerrendaratzen direnei egin zitzazkien ordainketei dagozkien 228.929,4 mila pta.ko gastuak bereizi ditugu:

| | Mila pta. |
|--|------------------|
| BALTU SOZIALA | ZENBATEKOA |
| Amzabal CB..... | 7.889,6 |
| Ezcaray Langileen SC..... | 8.936,6 |
| Hormigones Aizko, SA..... | 11.094,3 |
| Jose M ^a Echevama, SA..... | 3.422,6 |
| Kanaliz Industrialak Gas SL..... | 5.102,7 |
| C.J. Ignacio Ulaña..... | 40.163,7 |
| BRUES, SA eraikuntzak..... | 67.877,5 |
| GIROA, SA..... | 7.484,8 |
| HOSGABE, SA..... | 26.893,3 |
| Juansti Julian (obra kontratana)..... | 7.102,6 |
| Elurra Garbiketak, SL..... | 10.987,7 |
| Norte Kultur Produkzoak..... | 6.215,7 |
| PHASE, SL..... | 13.408,3 |
| KALAMUA Elkarteko Kooperatiboa..... | 12.350,0 |
| GUZTIRA | 228.929,4 |

Udalak ondoko esleipen hauei dagozkien kontrataazio espedienteak bideratu dizkigu:

- Herriko Antzokia zaharberritu eta egokitzea:
 - Besaulkiak erozi eta jartzea (Ezcaray, Langileen S.C.)
 - Soinu, argi, makineria eta INTERCOM (PHASE, SL) horritu eta jartzea.
 - Egokitze prozesua:



- Obra zibila, igeltsua, sapai faltsuak, egurrezko arotzgintza eta pintura bereziak (J. Ignacio Ulacia).
- Isolagailuak, argindarra, su babesak eta estaldura erre-ezinak (HOSGABE, SA).
- Aire girotua (FIROA, SAS).
- Ezenarro kaleko saneamendu kolektorea (Gasaren kanalizazio industrialak, SL).
- San Miguel Frontoia estaltzea (C.J. Ignacio Ulacia).
- Pedro Muguruza Etorbidean espaloia zabaltzea (Herriko Antzokia - Erresidentzia bidezatia) (C.J. Ignacio Ulacia).
- Mintxetako kirol eremua eraikitzea, 1. zatia (1992) (Brues Eraikuntzak).
- Leku-Eder Parkea enparantza urbanizatzea (Brues Eraikuntzak).
- "Elurra Garbiketak, SL" enpresari Urasandi eta Muguruza ikastetxeen garbiketa zerbitzuaren esleipenak (87.12.7), eskolaurrea eta dantzarako aretoena (88.3.21), Kultur etxea eta Liburutegiarena (93.10.18) eta Zaharretxearena (93.12.15).
- "Etxerako laguntha" udal programatik eratorritako zerbitzuak, 91.6.6ko Osokoan esleituak (Kalamua S. Koop.).

Udalak aurkeztu dituen espedienteak aztertzetik ondoko huts hauek azaleratu dira:

- Aztertu diren espediente gehienetan ez da Baldintzen Plegua, gastua, proiektua eta lehiaketa prozesuaren irekiera oniritzen duen horretarako eskumena duen sailak ebatzitako erabakirik ageri.
- Mintxeta Kirol eremuaren eraikuntza eta Leku-Eder Parkearen urbanizazioa izan ezik, espediente guztiak zuzeneko kontratazio bidez esleituak izan dira, esleipen sistema hau eragin duten arrazoia adierazten ez direla, ezta Udalak lehiatzaileei gonbidapenak igortzeko erabili dituen irizpideak (iragarki publikoa, alorreko enpresen hautaketa, e.a.), ezta eskatutako eskaintza kopurua ere.
- Herriko Antzokiaren zaharberritzea dela-eta, ez zaigu horretarako eskumena zuen erakundeak oniritxitako proiektua eskuratu.

Hala eta guztiz ere, igorritako dokumentazioa aztertuta, kontratazio organuak espedientea "elkargo"en arabera zati-banatu duela ondorendu daiteke; jardunbide hau bateraezina da Estatuko Kontratuei buruzko Legearen 21. artikuluarekin eta Kontrataziorako Araudi Orokorraren 59. art.arekin (1994. urtealdian indarrean zeudenak):

- Kontratariei eskagarria zen kasuetan sailkapen agiririk eskatu zaienik ez da ageri, ezta Administrazioarekin kontratuak gauzatzeko gaitasuna zutenik egiazatatu ere.
- Kontratuak administrazio agrian gauzatzen direnik eta behin-betiko fidantzak udalbatzaren alde osatzen direnik ez da ageri.
- Antzokia zaharberritu eta egokitzeari dagokionez, eta obrak amaitu direlako ziurtasunik izan gabe, desbideraketa larriak ikusi dira bi kontratariri ordaindu zaien guztizko kopuruaren eta esleipen prezioen artean; obra zibila eta osagarrien esleipenaren kasuan



desbideraketa %48,2koa izan da eta %45,3koa berriz, isolamendu, argindar, suteen aurkako eta abarren kasuan.

Deshideraketa hauek esleipenaren ondoren hitzartutako obra aldaketei badagozki oke ere, formalki ez da inon ageri horretarako eskumena duen jardute sailaren aldaketa-haimenik, ezta prezioak finkatzeko jarraitutako irizpiderik ere.

- Elurra Garbiketak, SLri ordaindutako guztizko gastuak, 10.987,7 mila pta.koak, ikastetxeen garbiketa, Zaharretxearen aretoak, Kultur etxea eta Liburutegia besarkatzen ditu.

Udalak udal areto guztiak garbitzeko kontratacio espediente bakarra bideratu behar luke, horren lehiaketa eta esleipena administrazio kontratacioari buruzko legediaren arabera eginez.

- Etxerako Laguntza zerbitzua ematea 1991ko Osokoaren esleipen batek justifikatzen du, hasiera batean urtebeko iraupena izan behar zukeena; ez dakigu ea dagokion kontratua gauzatu zen, hitzartutako luzapenaldiak, ezta prezioak berrikusteko erabilitako sistema zein izan den ere.

Gainerako gastuei dagokienez, 35.724,8 mila pta.koak, ez zaigu inongo kontratacio espedienterik eskuratu, eta honenbestez:

- Esleipenak dagozkien erabakiek, kontratuak, kontratarien gaitasun egiaztagetak, behin-behiko fidantzak, e.a., gauzatu direlako ebidentziarik ez dago.
- Ez dakigu udalak esleipenak egiteko zein sistema erabili duen, ezta esleitua izan dena hautatzeko zein irizpide hartu diren oinarritzat.
- Duen kopuru handiagatik, aipagarria da Hormigones Aizkorri egindako 11.094 mila pta.ko ordainketa, baserri pistak egiteko materiala hornitzen duena; hauek lehiaketagai izan behar luke.

Hona hemen gastuen azterketan azaleratu diren beste huts orokor batzuk:

- Aztertu diren espedienteetatik batean ere ez dira expedientea onartu aurretik Idazkariak eta Artekariak egin beharreko txostenak ageri; honenbestez, kontratuai dagozkien eduki ekonomikodun egintza administratiboak aurrez fiskalizatu behar direlako arau orokorra urratu da (TJTBrein 113.1, 3 eta 5. art. eta EKAOren 10.4 eta 17. art.).
- Gastuaren euskarriak dira ordainagiriak, ordainketa agindua eta Ogasun Batzordearen haimena. Obretan egiten diren gastuetatik asko ez dira dagozkien obra egiaztagiriek aurkezten.
- Ordainketak 180 egunetik gorako atzerapenez egiten dira; honela, 1993. urtealdiko eta lehenagoko gastuak, 52.670 mila pta.koak, 94. urtealdiko gastu modura kontuetaratu direla ikusi da.



1994. urtealdian indarrean zegoen legediaren arabera, kontratariak egiaztagiria edo ordainagiria egiten duenetik kobraatu bitartean hiri hilabetetik gorako epea igarotzen bada, interesak eskatzeko eskubidea du.

- Ez dakigu 1994an egin eta 1995. urtealdian kontabilizaturiko gastuaren zenbatekoa zein den, baina Elurra Garbiketen gastuan, 2.559 mila pta.n erregistratzeko gastuak daudela ikusi da.

6. BARNE KONTROLA

Elgoibarko Udalari igorritako barne kontrolari buruzko inkesta aztertzetik, ondoko egoeraok azaleratu dira:

- Nomina, erosketa, kobraintza eta ordainketen gainean idatzitako kontularitzazko administrazio prozedurarik ez dago.
- Langile hakoitzak egin beharreko lanen izendapen idatzirik ez dago.
- Udalak ez ditu ondasun guztiak eskrituran jasoak eta eskrituran jasoak daudenetatik gutxi batzuk baizik ez daude Jabetza Erregistroan izen emanda.
- 1994an abian jarri gabe zegoen Herri Alorreko Kontularitza Planari egokitutako Kontabilitate Orokorra, Aurrekontu Kontabilitateari bakarrik eutsiz.
- Ez dago langileen hanakako espedienterik, dagokien administrazio dokumentazio guztia bilduko duenik.
- Gauzazko ordainsariak jasotzen dira, ez diruzkoak, dagozkien konturako sarrerarik egin gabe eta 10-T agiran ere barne-hartu gabe.
- Nominetan egiten diren aldizkako egiaztakelen ebidentziarik ez dago.
- Udalbatzak ordainagirien kobraeketa kudeatzeko ez du basketxeekin inongo kontratu edo hitzarmenik gauzatu.
- Udalaren hornidura erosketan, zerbitzu eta obretan ez da esleipen prozedurarik egiten, administrazio kontratazioari buruz indarreko araudian erabakitakoa urratuz.
- Gastuak ordainagiriak jaso ahala erregistratzen dira eta gastuaren egiterapen fase ezberdinak (ADOP) ez dira bereizi kontuetaratzen.

7. GEROKO GERTAKARIAK

Udalbatzaren Lehendakariak egindako jakinarazpenaren arabera, azterketa hau egin ondoren, aurkitutako hutsak hobetzeko ondoko neurriok bideratu dira:

LANGILEGOA:

- Ordularien mantenuagatiko ordainketei dagozkien egoerak zuzendu dira.
- Enpresa batekin zinemaren kudeaketa kontratatu da.
- Arkitektoak ordainagiriak egiten ditu.

- Udaltzainen berariazko osagarria desagertu da; udaltzain modura kobratu arren, kontagailuen irakurketa lana egiten zuten.
- Langileak, lanuzteak, kontratazio prozedurak e.a. kontrolatzeko sistemak tajitzen ari den tekniko bat kontratatu da.

KONTABILITATEA:

- Kontabilitate Orokor Publikoa abian jarri da eta 1995eko itxierarako Egoera Balantzea eta Galdu-Irabazien Kontua mamitu da.
- GFD udalaren ekonomia kudeaketan hobekuntzak egiteko lagunza programa bat gauzatzen ari da, ondoko jardueraok besarkatuko dituena:
 - Epe luzerako ekonomia plana.
 - Kontularitzako antolakuntza egitura finkatu.
 - Aurrekontu egiterapenerako prozedurak.
 - Diruzaintza kudeaketa
 - Artxiboaren kudeaketa.



ERASKINA. 1994. URTEALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

| Mil.-pta. | | | | | | | |
|--|----------------------|---------------------|----------------------|---------------------|----------------------|-----------------------------|------------------------|
| DIRUSARREREN KAPITULUA | HASIERAKO AURREK. | KREDITU ALDAKETA | B.-BETIKO AURREK. | ESKUBIDE UKIDOAK | DIRUBILKETA UKDOA | KOBRA-BETEARAZP. TZEKOA | (+,-) |
| 1 Zuzeneko zergak..... | 171.366 | 0 | 171.366 | 194.097 | 172.438 | 21.599 | (22.671) |
| 2 Zeharkako zergak..... | 16.500 | 0 | 16.500 | 11.392 | 10.274 | 1.118 | 5.108 |
| 3 Tasak eta bestelako dirusarrerak.... | 191.967 | 0 | 191.967 | 187.606 | 183.294 | 4.312 | 4.361 |
| 4 Transferentzia arruntak..... | 542.564 | 5.698 | 548.262 | 544.471 | 541.517 | 2.954 | 3.791 |
| 5 Ondarearen dirusarrerak..... | 5.153 | 0 | 5.153 | 6.325 | 6.325 | 0 | (1.172) |
| 6 Inberto errealen besterentzea..... | 3.000 | 0 | 3.000 | 2.974 | 2.974 | 0 | 26 |
| 7 Kapital transferentziak..... | 64.450 | 0 | 64.450 | 64.450 | 49.159 | 15.291 | 0 |
| 8 Finantza Aktiboen Aldaketa..... | 0 | 1.222 | 1.222 | 1.222 | 183 | 1.039 | 0 |
| 9 Finantza Pasiboen Aldaketa..... | 160.000 | 0 | 160.000 | 160.000 | 160.000 | 0 | 0 |
| DIRUSARRERAK, GUZTIRA | 1.155.000 | 6.920 | 1.161.920 | 1.172.477 | 1.126.164 | 46.313 | (10.557) |
| GASTUEN KAPITULUA | HASIERAKO AURREK. | KREDITU ALDAKETA | B.-BETIKO AURREK. | OBIGAZIO UKIDOAK | ORDAINKETA UKDOAK | ORDAIN-BETEARAZP. TZEKOA | (+,-) |
| 1 Langileen ordainsanak..... | 295.476 | 2.152 | 297.628 | 296.103 | 288.574 | 7.529 | 1.525 |
| 2 Ondasun eta zerbitzuen erosketa... | 165.213 | 7.113 | 172.326 | 166.772 | 132.148 | 34.624 | 5.554 |
| 3 Korrituak..... | 129.763 | (14.150) | 115.613 | 115.613 | 115.613 | 0 | 0 |
| 4 Transferentzia arruntak..... | 226.521 | 9.109 | 235.630 | 231.937 | 174.032 | 57.905 | 3.693 |
| 6 Inbertsio errealaak..... | 238.724 | (136) | 238.588 | 237.993 | 150.221 | 87.772 | 595 |
| 7 Kapital transferentziak..... | 2.088 | 0 | 2.088 | 2.088 | 1.566 | 522 | 0 |
| 8 Finantza-Aktiboen Aldaketa..... | 60.201 | 1.222 | 61.423 | 61.423 | 61.423 | 0 | 0 |
| 9 Finantza Pasiboen Aldaketa..... | 37.014 | 1.610 | 38.624 | 38.622 | 38.622 | 0 | 2 |
| GASTUAK, GUZTIRA | 1.155.000 | 6.920 | 1.161.920 | 1.150.551 | 962.199 | 188.352 | 11.369 |
| URTEALDIKO EMAITZA ARRUNTA | | | | 21.926 | | | BALILOGABETZEAK |
| URTEALDI BURUTUETAKO ZORDUNAK | 323.587 | | 323.587 | 292.932 | 106.594 | 186.338 | 30.655 |
| URTEALDI BURUTUETAKO HARTZEKODI | 317.534 | | 317.534 | 293.993 | 271.230 | 22.763 | 23.541 |
| URTEALDI BURUTUJAK | | | | | | | (7.114) |

| | |
|--|------------------|
| URTEALDIKO AURREK. EMAITZA | 14.812 |
| ZUZENKETAK | |
| Finantzaketa desbiderapena (+/-)..... | 0 |
| Druzko gandekin finantzatutako gastuak..... | 0 |
| ZUZENDUTAKO URTEALDIKO EMAITZA | 14.812 |
| Kobratzeko dauden zordunak..... | 232.651 |
| Ordaintzeko dauden hartzekodunak..... | 229.812 |
| Fondo likidoak..... | 19.686 |
| DIRUZAINZAKO GAINDIKINA | 22.525 |
| Eraginpeko finantzaketa bidezko gastuetarako gaiadikina..... | 0 |
| GASTU OROKORRETARAKO GAINDIKINA | 22.525 |
| 94.12.31-KO ZORPETZEA | 1.215.735 |



DIRUZAINTEA GAINDIKIN FINKATUA 1994

Mila-eta

| KOBRAZKO DAUDEN ZORDUNAK | |
|---|----------------|
| Indarreko dirusameren aurrekontutik..... | 46.313 |
| Ixtako dirusarreren aurrekontutik..... | 186.338 |
| Aurrekontuz kanpoko beste eragiketetatik..... | 0 |
| (-Zalantazko kobra-garatasuneko saldoak)..... | 0 |
| (+Aplikatzeko dauden dirusarrerak)..... | 0 |
| GUZTRA (A) | 232.651 |
| ORDAINZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK | |
| Indarreko gastuen aurrekontutik..... | 188.352 |
| Ixtako gastuen aurrekontutik..... | 22.763 |
| Aurrekontuz kanpoko beste eragiketetanik..... | 18.697 |
| GUZTRA (B) | 229.812 |
| DIRUZAINTEKO FONDO LIKIDOAK (C) | |
| DIRUZAINTEKO GAINDIKINA (D = A - B + C) | 22.525 |
| ERAGINPEKO FINANTZAKETA BIDEZKO GASTUETARAKO GAINDIKINA (E) | 0 |
| GASTU OROKORRETARAKO GAINDIKINA (D - E) | 22.525 |



INTRODUCCIÓN

En cumplimiento del plan de trabajo del TVCP/HKEE para el ejercicio de 1996, se ha procedido a la realización de una revisión limitada a través tanto de la documentación incluida en la Cuenta General del Ayuntamiento del ejercicio 1994, como de la información adicional aportada por el Ayuntamiento, y del análisis de la encuesta de control interno que forma parte del diagnóstico de Entidades Locales del ejercicio 1994.

El Municipio de Elgoibar tiene una población en 1994 de 11.693 habitantes, y dispone de un presupuesto para el ejercicio de 1.162 millones de ptas.

ALCANCE

El alcance de la revisión realizada es el siguiente:

- Análisis de los procedimientos contables aplicados.
- Análisis del presupuesto aprobado y bases de ejecución presupuestaria.
- Análisis del endeudamiento.
- Análisis de subvenciones.
- Análisis de la situación del personal en el ejercicio 1994.
- Análisis de los procedimientos de contratación administrativa utilizados, sin que ello consista en un análisis exhaustivo de los expedientes.

CONCLUSIONES

A continuación exponemos las conclusiones obtenidas del trabajo realizado, clasificadas en las diferentes áreas de actuación, sin que las mismas puedan considerarse como el resultado de una fiscalización, ni puedan generalizarse a aspectos que no se mencionen expresamente en las mismas.

1. CONTABILIDAD Y PRESUPUESTOS.

Los presupuestos del Municipio de Elgoibar se confeccionan de acuerdo con la normativa foral en la materia (NF 4/91 y DF 96/92).

Del análisis formal del contenido de lo que debiera formar la Cuenta General del Ayuntamiento de Elgoibar para 1994, se observan las siguientes situaciones:

- La liquidación correspondiente al ejercicio presupuestario de 1994 se aprobó en Pleno de 27 de abril de 1995, pero no tenemos constancia de que se haya confeccionado y aprobado la Cuenta General del ejercicio 94.
- El Ayuntamiento no calcula el Resultado presupuestario del ejercicio, distinguiendo el Resultado del presupuesto vigente del Resultado de ejercicios cerrados, ni calcula las desviaciones de financiación.



- En el cálculo del Remanente de Tesorería del ejercicio 94, la corporación no ha realizado un estudio financiero de las expectativas de realización en el tiempo de los derechos pendientes de cobro.
- No se ha presentado la Cuenta de Tesorería del ejercicio.
- En 1994 el Ayuntamiento no había implantado la Contabilidad Patrimonial y por tanto, no había confeccionado el Balance de Situación a cierre del ejercicio, la Cuenta de Resultados y el Cuadro de Financiación Anual.
- No se ha confeccionado la Memoria del ejercicio.
- No se aplica el principio de devengo para el registro de los gastos financieros.

Remanente a 31.12.94

La liquidación del presupuesto del ejercicio 1994 del Ayuntamiento de Elgoibar presenta una cifra de Remanente positivo de 22.525 miles de ptas.

